

BESTELAKO XEDAPENAK

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

5290

AGINDUA, 2018ko irailaren 21ekoa, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, zeinaren bidez jendaurrean jartzen baita arte plastikoak eta ikusizkoak sustatzeko 2018ko edizioko Gure Artea Sarietan saritutako pertsonen zerrenda.

2018ko apirilaren 10eko EHAAAn, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuaren 2018ko martxoaren 7ko Agindua argitaratu zen (agindu haren bidez, arte plastikoak eta ikusizkoak sustatzeko 2018ko edizioko Gure Artea Sarietarako deialdia egiten da).

Martxoaren 7ko Aginduaren 7.3 artikulua dioenez, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da modalitate bakoitzean saritutako pertsonen zerrenda.

Horiek horrela, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Arte plastikoak eta ikusizkoak sustatzeko 2018ko edizioko Gure Artea Sarien hiru modalitateetan saritutako pertsonen zerrenda jendaurrean jartzea:

- Ibilbide artistikoa aitortzeko saria: Gema Intxausti Miangolarra.
- Sorkuntza-lana aitortzeko saria: Erlea Maneros Zabala.
- Ikusizko arteen arloan agenteek egindako lana aitortzeko saria: Asoc. Gatzipeko kultur elkar-
tea, Bulegoak z/b proiektuagatik.

Bigarrena.– Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadila agintzea, guz-
tiek horren berri izan dezaten.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko irailaren 21a.

Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburua,
BINGEN ZUPIRIA GOROSTIDI.